


## BARRIO-NOGRARO-QUEJO

Por los pueblos de la Cosierra de Arcena



### Encuadre geográfico

Este recorrido transcurre por la comarca de Valles Alaveses, íntegramente por el municipio de Valdegovía. Las localidades de Barrio, Nograro y Quejo, están situadas al pie de la imponente sierra de Arcena, con montes como Mota y Cueto, que superan los 1.000 metros. En estos tres pueblos acababan las carreteras (al menos hasta los arreglos del PEMBU) y para acceder a ellos se debía hacer por estrechas carreteras desde Espejo, Villanueva de Valdegovía y Gurendes respectivamente. Estas carreteras son paralelas a arroyos que bajan de la sierra, los cuales desaguan en el Omecillo, el río que articula Valdegovía y que se une al Ebro en Puentelarrá (pasado Bergüenda).

### Flora y fauna

Sin la intervención humana la vegetación sería una alternancia de quejigos y pino albar, con pequeñas masas de encinas en los crestones. Estos pinares naturales son abiertos, muy diferentes de las plantaciones de la vertiente cantábrica, y albergan un muy diverso sotobosque. Entre las especies que habitan en esta zona están el escaso lirón careto, las ardillas, jabalíes, gatos monteses y garduñas. Sin duda oiremos a pájaros carpinteros como el pito real y el pico picapinos. Y tampoco nos podemos olvidar de las estables poblaciones de corzo.

### Apuntes históricos

- Sobre el pueblo de Barrio, al pie del acantilado, se encuentra el castro de Berbeia, poblamiento de la Edad de Hierro, en parte romanizado y ocupado con posterioridad en el alto medievo. (Terrazas de las laderas NE y SO).

- En los siglos IX y X esta zona recobra una especial importancia. Por la presión musulmana, el Obispado de Oca se traslada a Valpuesta, en la muga alavesa, y el obispo Juan de Valpuesta inicia una intensa repoblación del valle. En esta época se construyen más de 30 monasterios en Valdegovía y Lantarón; entre ellos en Nograro, Quejo y Gurendes. De estos tres, hoy queda solo el reconvertido monasterio de San Julián de Quejo.

- La torre de los Salazar en Nograro fue construida en los siglos XIV y XV, con almenas y garitones y arcos conopiales en sus portadas. Del antiguo oratorio adjunto, hoy sólo se adivina una pared. De estilo castellano como las de Fontecha y la magnífica de Villanañe, protegía los caminos que desde Burgos se internaban en Álava por Valdegovía, terrenos por aquel entonces de dominación castellana.

- La ermita de Mellera es el punto más alto del recorrido; en la octava del Corpus se celebra una romería de los pueblos que forman la Cosierra de Arcena (Barrio, Bacicabo, Gurendes, Quejo, Nograro y Sobrón).

## ITINERARIO

### **0h. 0' / 0 km**

Nuestro recorrido comienza en el pueblo de **BARRIO**. Junto a las primeras casas, se nos presentan 3 caminos para entrar en el pueblo, cogemos el de la derecha, para enseguida, volver a coger una pista en la misma dirección, junto al lavadero. Esta pista gana altura poco a poco, tras pasar una valla metálica, que cerraremos tras nuestro paso, seguimos subiendo entre un bonito bosque de pino silvestre. Donde el camino se hace más llevadero, vemos a la derecha una gran peña, donde las cuerdas que cuelgan de la roca delatan a los escaladores que están equipándola.

El camino, aunque sigue subiendo, es muy cómodo. Al poco nos encontramos con una ancha pista, que se nos une desde nuestra izquierda. Nuestra opción será pasar la valla que tenemos a la derecha, y seguir recto el camino paralelo a la pista. En esa misma valla, pero en dirección contraria, encontramos el acceso a la ermita de Mellerá.

### **0h. 40' / 1'8 km.**

Tras ascender ligeramente, iniciamos el descenso también entre pinos. A nuestro camino desembocarán otras pistas y senderos que obviaremos, para seguir de frente por un bonito camino. Al poco rato, podremos ver frente a nosotros una espectacular vista del pueblo de Nograro con el majestuoso Peñakarria al fondo. Descendemos hasta **NOGRARO**.

### **0h. 55' / 3 km.**

Se desciende desde la iglesia tomando la carretera a Villanueva de Valdegobia (a la derecha), para seguir por ella escasos 100 mts. Enseguida tomaremos una pista de cantos y hierba que asciende a la izquierda. Es un camino entre campos de cultivo, con setos en ocasiones amplios. Por momentos aparecen pequeños pinares en la orilla del camino, aunque siguen predominando los campos de cultivo.

Hay un camino que asciende hacia el monte (termino Las Aguadas), que dejaremos de lado. Al poco tiempo encontraremos un cruce de caminos, en el que tomaremos a la derecha. Un arroyo se cruza en nuestro camino, debemos sortearlo por un cercano puente. Estamos ya en Gurendes, concretamente en el barrio de Zulueta.

### **1h. 45' / 6,5 km.**

Tomamos la carretera y seguimos por ella 200 mts., al llegar al depósito y abrevadero veremos dos pistas, cogemos la de la derecha. El paseo continua suave por una pista herbosa. En algún momento se puede ver el barranco del río Omecillo. Al poco llegamos al cementerio de San Millán de San Zadornil. Seguimos sin pérdida hasta el pueblo. Aquí tomaremos a la izquierda por la carretera.

### **2h. 30' / 9,5 km.**


Dejamos el pueblo y continuamos por la carretera hasta tomar la primera pista a la izquierda. Continuaremos por ella ascendiendo un pequeño alto, dejando un camino a la derecha, y finalmente ascendiendo una prolongada cuesta, comenzamos a descender.

### **3h. 10' / 11 km.**

Nos unimos a la carretera y continuamos a la izquierda hasta llegar a nuestro objetivo final, que no es otro que **QUEJO**.

## BARRIO-NOGRARO-QUEJO

Arzena Kozerrako herrietatik zehar



### **Kokapena**

Ibilbide hau Arabako Bailarak eskualdetik zehar doa, bere osotasunean Gobeako Bailarako udaletik. Barrio, Nograro eta Quejo herriak Arzena mendizerra ikusgarriaren magaletan kokatuta daude. Herri hauetatik Mota eta Cueto gailurretara joan daiteke (1.000 metrotatik gorako gailurrak). Hiru herriotan errepideak bukatzen ziren (PEMBU delakoaren lanak egin arte); errepideak estuak eta txarrak ziren, eta errekaetoei jarraituz hiru herriak Espejo, Villanueva eta Gurendesekin lotzen zituzten.

### **Landaretza eta fauna**

Gizakiaren partehartzea gertatu ezean erkametz eta pinuen tartekatzeak osatuko zuen bertako landaretza. Pinudiak naturalak dira, oso irekiak, isurialde kantauriarrekoekin alderatuz oso ezberdinak, eta basozpiko landaretza oso anitza. Inguru honetako espezieen artean dago mitxarroa (oso urria), katagorriak, basurdeak, basakatuak eta lepazuriak. Zalantzarik gabe okil berdea eta okil handia bezalako txori arotzak entzungo ditugu. Ezin dugu ahaztu ere orkatxa, talde iraunkorrak daude eta.

### **Ohar historikoak**

- Barrio herriaren gainean, amildegiaren oinetan, Berbeia kastroa dago. Burdin Aroko herrixka, zertxobait erromartatua da, eta beranduago Goi Ertaroan berriro okupatua izan zen (IE eta HMko magaletako terrazetan).
- IX eta X mendeetan inguru honek garrantzi berezia hartzen du. Musulmandarren oldarraldiak direla eta Ocaño Apespikutza Valpuestara eratorriko da, Arabako mugan, eta Valpuestako Juan apezpikuak bailara birpopulatzeko ahalegin handia hasiko du. Garai honetan 30 monastegi baino gehiago eraikiak izan ziren Gobearen eta Lantaronen; horien artean Nograro, Gurendes eta Quejokoak. Azken hiru hauetatik bakarrik geratzen da Quejoko San Julian, oso eraldatuta.
- Salazartarren dorretxea Nograron XIV eta XV mendeetan eraikia izan zen; almenak eta garitak ditu, baita portadan arku konopialak ere. Aldameneko otoiztoki zaharretik bakarrik horma bat igartzen da. Gaztelar estilokoa, Fontetxa eta Villanañeko dorretxe ikusgarriaren antzera, Burgosetik Gobearen zeharkatuz Araban barneratzen ziren bideak babesten zituen, Gaztelaren menpean zeuden lurak hain zuzen.
- Mellera basiliza ibilbidearen tokirik altuena da. Corpus egunaren zortzigarrenean Arzena Kozerrako herriek erromeria ospatzen dute (Barrio, Batxikabo, Gurendes, Quejo, Nograro eta Sobrón).

## IBILBIDEA

**0or. 0' / 0 km.** Gure ibilbidea BARRIO herrian hasten da. Lehenengo etxeen ondoan herrian sartzeko hiru bide aurkituko dugu; guk eskubitakoa hartuko dugu. Berehala, garbitokiaren alboan, norabide bereko pista batera sartu beharko dugu. Pista honek pixkanaka gora egiten du eta burdin hesi bat zeharkatu ondoren (gurutzatutakoan itxi beharko duguna) pinudi polit batetik zehar igiten jarraituko dugu. Ibilbideak aldapa moteltzen dduen tokitik eskubitara harkaitz handi bat ikusiko dugu. Harkaitz horretatik eskegita dauden sokek bidea irekitzen ari diren eskalatzailen presentzia iragartzen digute.

Bidea, nahiz eta igotzen jarraitu, oso eroso da. Berehala gure ezkerretatik datorren pista zabal batekin egingo dugu topo. Guk eskubitara dugun burdin hesia gurutzatuko dugu eta zuzen, lehengo pistaren paraleloan doan pistatik jarraituko dugu. Kontrako norabidean, Mellera baselizara iritsiko ginateke.

**0or. 40' / 1'8 km.** Pixka bat igo ondoren, jeitsiera hasiko dugu; pinuen artean. Gure ibilbidearekin bat egiten duen pistak alde batera utzita, bide polit honetatik jarraituko dugu. Berehala gure aurrean paisai ikuskarri bat agertuko zaigu; Nograro herria, atzean Peñakarria haundiosoa duelarik. **NOGRARORA** iritsiko gara.

**0or. 55' / 3 km.** Elizatik behera egingo dugu Gobearanako Villanuevara doan errepideraino. Eskubitara, 100 metro eskas egin ondoren, ezkerretatik gora egiten duen harrizko pista belartsua hartuko dugu. Lur sailen arteko bidea da, batzuetan zuhaixka hesi zabalarekin alboetan, besteetan hau gabe. Zuhaitzak batzuetan pinudi txikiak osatzen dituzte, baina soroak dira nagusi.

Las Aguadas tokira igotzen den bidea alde batean utzita bidegurutze batera helduko gara, non eskubitakoa hartuko dugun. Erreka batek moztuko du gure bidea; salto egiten edo ondoko zubitik gurutzatuko dugu. Gurendesen gaude; Zulueta auzoan hain zuzen ere.

**1or. 45' / 6,5 km.** Errepidea hartuko dugu eta 200 m. jarraituko dugu. Ur biltegi eta askara iristean bi pista ikusi, eta eskubitakoa hartuko dugu. Ibilbideak lasa darrai pista belartsutik. Inon Omecillo ikusi ahal izango dugu amildegiaren hondoan. Berehala San Zadornileko San Millanera iritsiko gara. Galbiderik gabe herrira iritsiko gara. Hemen ezkerretara egingo dugu errepidetik.

**2or. 30' / 9,5 km.** Herria utzi eta errepidetik ezkerretara dagoen lehenengo pista hartuko dugu. Aldapa txikia igoko dugu eta eskubitarako beste pista baztertutakoan azkenengo igoera luzea hasiko dugu. Gero behera egingo dugu errepidearekin bat egin arte.

**3or. 10' / 11 km.**

Errepidearekin bat egin eta ezkerretara jarraituko dugu gure ezkeneko helbururaino; hau da **QUEJO**.